



EBAZPENA, 2023ko otsailaren 8koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan onartutako eta baztertutako behin betiko zerrenda onartzen duena.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 12ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egin zen.

2023ko urtarrilaren 18ko Ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, aipatutako hautaketa-prozeduretan onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartu zen.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren eta behin aztertuta, bai eta izangai jakin batzuen bazterketa-akatsak zuzenduta ere, aipatutako deialdiaren 4.4 oinarriak xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez deitu zen).

2. artikulua.– Ebazpen hau, bai eta behin betiko zerrenda ere, interesdunei jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

–<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) eta «Onartuen eta baztertuen zerrenda»

–<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-langileak/> («EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua») – «Onartutako eta baztertutako zerrenda»

3. artikulua.– Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Deialdiaren 8. oinarriak xedatutakoari jarraiki hautatuko diren izangaiek aurkeztu behar dituzten dokumentuak ikusita egiaztatzen bada interesdunen batek betekizunen bat betetzen ez duela, osasun-azterketan ez-gaitzat jotakoak barne, prozedura honetan parte hartzeak eman ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu izangai horrek.

4. artikulua.– Interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen horren aurka, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 8a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
BLANCA GUERRERO OCEJO